1. zkia. 2003ko abendua

# baikara

Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa



## OLENTZERO
## Badatozkigu Gabonak ikasgeletara



ACTUALIDAD
**Regulación Escuelas Infantiles**



KULTURARTEKOTASUNA
**Kulturarteko Heziketa Programa**



Utzi hegan egiten zure irudimenari eta idatzi euskaraz idatzi ahala.

Orain, zeurea da hitza




EUSKARAZKO
IDAZLANEN
lehenengo
LEHIAKETA

NORBEGA S.A.
Coca-Cola botilaratzaileak antolatutako ekitaldia
Argibide gehiago: Ane Epalza
Posta Elektronikoa: aepalza@norbega.com
Telefonoa: 94 457 71 62

Coca-Cola

www.conocecocacola.com

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa

**ARGITARATZAILEA**
**BAIKARA FEDERAZIOA**
Baso-Txiki Kalea,
36-atzealdea
20015 Donostia
✆ 943-327208
943-274977
e-mail: baikara@ehige.org
rosa@ehige.org

**Koordinatzailea**
Rosa Izquierdo

**Erredakzioa**
Imanol Zubizarreta
Amaña Ikastetxea
Zuhaizti Ikastetxea

**Euskara zuzentzaileak**
Miren Arratibel eta
Aintzane Atela

**Diseinua eta maketazioa**
Román Ferrero

**Inprimatzailea**
MCC graficc planta Danona
Inprimategia
(Oiartzun)

**Lege-gordailua**
SS-1453/03

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

# editoriala editorial

Lerro hauen bidez BAIKARA Federazioak Gipuzkoako eskola publikoko ikasleen familientzako argitara ematen hasi berri den aldizkari hau aurkeztu nahi dizue. Aldizkariak bi helburu nagusi ditu: batetik, familiei informazio praktikoa ematea guraso izateak dakartzan eguneroko eginkizun zail horiei aurre egiteko, eta, bestetik, Federazioaren baitan eta gure lurraldeko IGEetan eta ikastetxeetan sortzen diren kezkak, ekintzak eta egoerak plazaratzeko tresna izatea.

Hori dela eta, zuen eskura jarriko ditugu “BAIKARA” aldizkariaren orriak, eskola publikoko gurasoen komunikazio tresna izan daitezen; zuen informazioen, iruzkinen eta kritiken zain gauzkazue, horrela lortuko baitugu esku artean duzuen hau guraso guztien eta guraso guztientzako aldizkaria izatea.

*A través de estas breves líneas queremos presentaros esta nueva revista que la Federación BAIKARA dirige a las familias del alumnado de la escuela pública de Gipuzkoa. Esta revista nace con un doble objetivo: ofrecer información práctica a las familias para ayudarnos en esta difícil tarea diaria de ser madres y padres, y ser el altavoz de todas aquellas inquietudes, actividades y realidades tanto de la propia Federación como de las Ampas y centros públicos de nuestro territorio.*

*Por ello os ofrecemos las páginas de la revista “BAIKARA” para que os sirvan de cauce de comunicación con el conjunto de madres y padres de la escuela pública, además de solicitaros vuestras informaciones, comentarios y críticas para hacer que ésta sea una revista de y para todos los padres y madres.*










# laburpena sumario

**3.** EDITORIAL. **4.** INICIATIVA ‘BAKEA IRUDIKATUZ-IMAGINEMOS LA PAZ’. **6.** AMASORRAIN ETA INTXAURRONDO IKASTOLAK PROIEKTU PILOTU BATEAN PARTE HARTZEN ARI DIRA BALIOEN HEZKUNTZAREN ALORREAN. **7.** ZINEMA HEZKUNTZAN. **8.** ESCUELAS DE MADRES Y PADRES, UN VALOR EN ALZA. **10.** BADATOR OLENTZERO. **12.** EL TRAMO 0-3 AÑOS A EXAMEN. **14.** KULTURARTEKO FORMAZIORAKO PROGRAMA. **16.** MARTINUS WIJNAKKER, ESPECIALISTA EN INMIGRACIÓN, NOS VISITÓ EN OCTUBRE. **17.** ¿QUÉ ES UNA MEDIATECA ESCOLAR?. **19.** COCA-COLA ORGANIZA EL I CONCURSO DE REDACCIÓN EN EUSKERA. **20.** BI IKASLE SARIDUN, LEGAZPIN ETA ERRENTERIAN/BAIKARAKO BATZARRA/EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN XIII JAIA/ IKASLE BAT, ADREILU BAT/KONTSUMO ARDURATSUA INTXAURRONDO IKASTOLAN/ BAGOIAZ PROIEKTUA EIBARREN/JOLAS KOOPERATIBOEN TAILERRA LEGAZPIN. ♣

# *imaginemos la paz*
# **bakea irudikatuz**



El proyecto educativo 'Bakea Irudikatuz-Imaginemos la Paz' surgió como una iniciativa que, desde el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián pretendía diseñar políticas ejemplares de educación para extender los valores del civismo, la convivencia, la libertad, la tolerancia, la solidaridad entre los escolares de la ciudad.

'Imaginemos la paz' quiere hacer participar a los niños y niñas en el conocimiento, significado y defensa de los derechos humanos. Se plantea como una acción pedagógica con los niños y niñas como protagonistas que se extiende más allá del mundo escolar, para poder alcanzar la colaboración de aquellos agentes socioculturales que, en nuestra ciudad, vienen desarrollando actividades formativas, gentes de Asociaciones, de la cultura, la escuela y la Universidad, de las ludotecas y las casas de cultura, de los espacios expositivos...

Este proyecto ha partido de la Declaración de Derechos del Niño de 1989, adaptándola a un lenguaje de fácil comprensión para la infancia.

Algunos de los conceptos que acoge esta declaración se han trabajado en profundidad, entre ellos, y con carácter prioritario, el derecho a la vida, a la identidad, a la protección, a la educación, al bienestar y al juego, a la igualdad y la cooperación, derecho a la participación..., en definitiva, derechos iguales para todos y todas y obligación de respetarlos y defenderlos.

La metodología utilizada ha sido la de hacer pensar a los niños y a los adultos que han colaborado, provocar la reflexión y enseñar a expresar desde lenguajes diferentes con contenidos estéticos.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Delegación de Deportes y Juventud
Kirol eta Gazteria Ordezkaritza
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Tolerantziako Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Tolerancia

iref

IKERTZE
ikertze@ikertze.euskalnet.net



**Potenciar la educación para la paz**

Este programa educativo 'Bakea irudikatuz-Imaginemos la Paz' está dirigido a alumnos y alumnas de Educación Primaria (6 a 12 años) y se enmarca también en el proyecto "San Sebastián, espacio para una Cultura de Paz". Surge de la necesidad de plantear una reflexión colectiva sobre la defensa de los derechos humanos, con el objetivo fundamental de incorporar la voz de la infancia en el marco de reflexión de la paz.

Para la realización de este programa el Ayuntamiento se puso en contacto con Ikertze, asociación cultural sin ánimo de lucro para la investigación, creación y difusión de proyectos educativos de participación infantil, ya que disponían de experiencia pedagógica en la creación y dinamización de laboratorios didácticos, así como material didáctico para trabajar los Derechos Humanos, creado y experimentado en diversos centros de Donostia.

Para el desarrollo del Programa se parte del material didáctico experimentado y contrastado con escuelas de Donostia (Intxaurrondo y Amasorrain) y Barcelona, además de investigadores educativos y artistas, además se elaboró un paquete pedagógico formado por: un cuaderno para el profesor, talleres de formación, la página web (www.donostia.org/bakeairudikatuz) e Ikertze –servicios pedagógicos. ♣





















## Un cuaderno para el profesor

El objetivo general de este programa es potenciar la educación para la Paz desde la reflexión filosófica y la expresión plástica.
Este material ofrece recursos para fomentar un diálogo cooperativo, crítico y significativo en el aula. Trata a su vez de desarrollar el pensamiento creativo y la capacidad de comunicación, además de potenciar la autonomía y la capacidad de trabajo en equipo, ofreciéndose asímismo recursos para dialogar con las familias.



Está formado por propuestas de acción y fichas de programación-valoración. Se trata de una material bilingüe del que se han editado 850 ejemplares en euskera y 500 en castellano.
Los contenidos a trabajar parten de la Declaración de los Derechos del Niño de 1989 y han sido adaptados a un lenguaje de fácil comprensión para la infancia. Se han trabajado en profundidad algunos conceptos de esta Declaración, organizándose por consiguiente el material en los siguientes bloques de contenido:
- Todos los niños y niñas tienen derechos.
- Derecho a la vida.
- Derecho a la identidad.
- Derecho al desarrollo.
- Derecho a la protección.
- Derecho a la participación.

### BAKEA IRUDIKATUZ-IMAGINEMOS LA PAZ

**'Bakea Irudikatuz-Imaginemos la Paz' hezkuntza proiektua hiriko ikasleen artean gizalegea, bizikidetza, askatasuna, tolerantzia eta solidaritatea zabaltzeko hezkuntza politikak diseinatzeko asmoa zuen ekimen gisa sortu zuen Donostiako Udalak.**
**'Bakea Irudikatuz' proiektuak neska-mutilek giza eskubideen ezagutzan, esanahian eta babesean parte hartzea du xede. Neska-mutilak protagonista dituen ekimen pedagogiko gisa sortu da, eta ikastetxearen munduaz haraindi zabaltzen da, gure hiriko hainbat eragile soziokulturalen laguntza lortu ahal izateko, hala nola, formazioaren alorra, Elkarteak, kulturaren alorra, ikastetxeak eta Unibertsitatea, ludotekak eta kultur etxeak, erakusketa guneak…**
**Proiektu hoenk 1989. urteko Haurren Eskubideen Aitorpenean du oinarri, eta haurrek erraz ulertuko duten hizkuntzara egokitu da.**
**Proiektuaren metodologia honako hau izan da: parte hartu duten haurrak eta helduak pentsatzera behartzea, haiek gogoeta egitera bultzatzea eta eduki estetikoa duten hainbat hizkuntzen bitartez gauzak adierazten erakustea.**



▲ Alvaro Camarero




▲ Maite Larrea

▲ Mª José Amunarriz

# "Esperientzia bikaina izan da"

**Donostiako Amasorrain eta Intxaurrondo ikastolek beren zentroetan gauzatu zuten 'Imaginemos la Paz-Bakea Irudikatuz' ekimena 2001-2002 ikasturtean.**

2001-2002 ikasturtea benetan berezia izan zen Donostiako Amasorrain Ikastolako Mª José Amunarriz eta Maite Larrearentzat, baita Intxaurrondo Ikastolako Alvaro Camarerorentzat ere; izan ere, ikasturte horretan ezagutu zuten 'Imaginemos la Paz-Bakea Irudikatuz' ekimena, proiektu berria, labetik atera berria, emaitza bikainak eman zituena hartzaileekin, 6 eta 9 urte bitarteko haurrekin.

"Hasieran ez zegoen erabat zehaztuta, baina oso itxura ona zuen; emaitzak, berriz, are hobeak izan ziren", dio Intxaurrondo ikastolako zuzendari Alvaro Camarerok. Eta emaitza on horien merezimendu guztia haurrei egozten die, gainera; haien xalotasunari, planteamendu tolesgabeei, oso zaila zena gauza eroso eta erraz bihurtzea lortu baitzuten.

Maite Larrea, gaur egun Amasorrain Ikastolako Ikasketaburua dena eta bere garaian Proiektuaren aholkulari eta koordinatzaile zena, maitasun handiz gogoratzen da gelan edo Ikertzen egin zituzten jardunaldi haietaz; haurrekin bakea, tolerantzia, bizitza, identitatea… landu zuen garaiaz eta, batez ere, haurrek emandako erantzunaz, sintesirako erakutsi zuten gaitasun harrigarriaz. "Helduek gure buruari egiten dizkiogun galdera asko –dio Mª José Amunarrizek– erraz-erraz erantzuten zituzten haurrek, ongi bereizten zuten dena, eta horrek ildo hori lantzen jarraitzeko kemena eta motibazioa ematen zizun.

> Ikasturte honetan, Amasorrain Ikastola balioak lantzen hasi da berriro ere, orain dela bi urte abian jarri zuten lehen ziklo hartako esperientzietan oinarrituta

**Jarraipena izango duen proiektu bat**

Hirurek diote, orobat, proiektu horretan zehaztutako lanerako eskema beste edozein gai lantzeko ere aproposa dela. "Pentsatzen laguntzen dizu; gida guztiak helduen ikuspegitik eginak dira, eta, hemen, aldiz, haurrak dira beren bizipenak adierazteko zer hitz erabili erabakitzen dutenak; gainera, eskolan zegoen hutsune handi bat betetzen du, balioen eta emozioaren arloko hutsunea; denak ez du izan behar eduki akademikoa", gehitu du MªJosek. Urtebetez proiektutik kanpo egon da, baina, ikasturte honetan berriro helduko dio, are gogo gehiagoz, ahal bada, eta landu duenaren eta onura ateratzen asmatu duenaren esperientziaz, baina, betiere, kontuan hartuta kontu honetan guztian haurrak direla benetako protagonista. ♣

**"HA SIDO UNA EXPERIENCIA ÚNICA"**

**El curso 2001-2002 no fue un curso como los demás para Mª José Amunarriz y Maite Larrea de la Ikastola Amasorrain de Donostia, ni para Alvaro Camarero de Intxaurrondo Ikastola, en ese curso llegó a sus manos la iniciativa 'Imaginemos la Paz-Bakea Irudikatuz', un proyecto nuevo, 'calentito' que dio unos frutos extraordinarios al contacto con sus destinatarios: para el alumnado de 6 a 9 años. De esta iniciativa surgió un esquema de trabajo muy válido que puede utilizarse para abordar cualquier tema y que, según sus propias palabras, "llena un espacio que estaba vacío en la escuela que es el mundo de los valores y las emociones, porque no todo es contenido académico".**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Delegación de Deportes y Juventud
Kirol eta Gazteria Ordezkaritza

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza eta Tolerantziako Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Tolerancia

IRUDI BIZIAK



# ZINEMA IRAKASKUTZAN

Aurten bosgarren urtea da antolatzen dela "Zinema irakaskuntzan: Balioetan heztea" programa, Donostiako Udaletxearen laguntzarekin. Gogoeta bultzatzea eta balioen hezkuntza sustatzea da programa honen azken helburua, eta horretara iristeko zinema hartzen da abiapuntutzat, gaur egungo komunikabidea, dinamikoa eta ludikoa baita zinema, eta komunikabide hori da parte hartzen duten ikasleengana iristeko bidea.

Programa Antiguoko Lugaritz Kultur Etxean egiten da, eta programa honen azken asmoa da irakasteko eta pertsona izaten ikasteko zereginetan laguntzea, zinema programako pertsonaiek bizi dituzten egoeren eta jarreren behaketatik eta analisi kritikotik abiatuta. Irakasleek eta ikasleek parte hartzen dute zinema saio hauetan, eta ikasgelan lantzen dituzte saio bakoitzerako bereziki landu diren materialak, jarduera horiei onura handiagoa ateratzeko eta sakontasun handiagoz aztertzeko asmoarekin landuak izan diren materialak hain zuzen ere.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, hainbat gairi buruz ikasleak gogoeta egitera bultzatzearen bitartez Balioen Hezkuntza normalizatzeko asmoa du programak, baina helburu horrez gainera, ikasleen ahalmenak lantzen lagundu nahi du programak, balio pertsonalak barneratuz eta kultura helaraziz.

**Estreinatu berri diren filmak**

Aurtengo ikasturtetik aurrera programaren izen generikoa "Zineskola" izango da, 'El cine en la Enseñanza-Zinema Irakaskuntzan' izenaren ordez.

Ikasturte honetan eskaintzen diren filmak estreinatu berriak dira, euskarara bikoiztuak. Guztira sei ikastetxek eman dute izena ekimen honetan parte hartzeko: Altza, Aitor, Ikasbide, Jakintza, Axular Lizeoa eta Santo Tomas Lizeoa, hau da, 648 ikasle guztira.

Lehen proiekzioa urriaren 20an izan zen, "Hegoaldeko lilura" filmarekin; bigarren proiekzioa otsailaren 5ean izango da, eta "Jan Oihan" film daniarra, "Lagundu, arrain bat naiz" filmaren zuzendariarena, ikusi ahal izango da; azken proiekzioa maiatzaren 3an egingo da, eta "Doraemon eta inperio maia" proiektatuko da. ♣



## EL CINE EN LA ENSEÑANZA

**Por quinto año consecutivo está en funcionamiento el programa, auspiciado por el Ayuntamiento de Donostia, "El Cine en la Enseñanza: Educación en Valores". Se trata de un programa pensado para favorecer la reflexión y educación en el ámbito de los valores, utilizando como punto de partida motivador el cine, medio actual, dinámico y lúdico a través del cual llegar al alumno participante. En este curso los largometrajes que se ofrecen son de reciente estreno y actualidad, doblados al euskera. En total son seis los centros que se han apuntado a la iniciativa: Altza, Aitor, Ikasbide, Jakintza, Lizeo Axular y Lizeo San Tomas, con un total de 648 alumnos.**



## I.H.RAKO PROGRAMA



**JAN OIHAN (Stefan Fjeldmark, Danimarka, 1993)**
JAN OIHAN dugu, LAGUNDU, ARRAINA NAIZ filma bikainaren zuzendari den Stefan Fjeldmark-en lehenengo animaziozko filma. IRUDI BIZIAK-ek euskaratua den filma honetan, bizitzaren defentsa ekologista sutsua egiten duen Fjeldmarkek oihanean bizi den animalia exotikoaren istorioa azaltzen digu, zein, diru asko balio izateagatik gizakien mehatxupean bizi den. Umorea, abentura, abesti dibertigarri eta politez eta Izadiarekiko begirunezko mezu baikor eta argia luzatzen duen filma hau izan da hain zuzen ere, europar animaziozko zinean karrera bikaina egiten ari den zuzendariaren lehenengoa.



**DORAEMON ETA MAIEN INPERIOA (Tsutomu Shibayama, Japonia, 2003)**
Iritsi berri dugu gure pantailetara, orain arteko katu kosmikoaren AZKEN ABENTURA HANDIA: Doraemon eta bere lagunek Maia inperioaren bihotzera bidaiatzen dute: Eskolan antzezlan bat entsaiatzen ari diren bitartean, Nobitak denboran zulo bat irekitzeko komentzitzen du Doraemon. Mayana herrialdera iritsi, eta bertako oinordeko printzeThio ezagutuko dute. Aipatu printzea, lotsagabe eta bere sentimenduak adierazteko gai ez den haurra, Nobita berdin berdina da itxuraz . Aurreko abenturetan bezala, ADISKIDETASUNA, ELKAR LAGUNTZA ETA ESKUZABALTASUNA bezalako baloreak dira aipagarrienak ekialdeko animaziozko zinerik onenetako saga bikain honetan.

## PROIEKZIOEN EGUTEGIA

| | JAN OIHAN | DORAEMON ETA MAIEN INPERIOA |
|---|---|---|
| BERGARA | Az 4 Ots. | Az 21 Apr. |
| DONOSTIA | Og 5 Ots. | Al 3 Mai. |
| LEGAZPI | Al 26 Urt. | As 20 Apr. |
| ZARAUTZ | Az 18 Ots. | Og 6 Mai. |

*Saioetako ordutegia: goizeko 10etan*



# Formación y reflexion **para madres y padres**

BAIKARA lleva ya tres cursos organizando toda una serie de talleres, escuelas y charlas dirigidas a madres y padres que abarcan un amplio abanico de temas que van, desde el 'Fracaso escolar' hasta la 'Alimentación y nutrición', pasando por charlas sobre 'La disciplina y la autoridad' o 'Lectura, televisión y videojuegos'.

La educación de los hijos e hijas no es tarea fácil ya que se trata, en definitiva, de desarrollar todas las capacidades y potencialidades de nosotros, padres y madres, y de nuestros hijos e hijas.

La necesaria mayor participación de las madres y padres en las escuelas e institutos hace necesaria una doble formación que contribuya al desarrollo equilibrado de nuestros hijos.

Así, entendemos la formación como un plan sistemático en aspectos psicopedagógicos, ambientales y organizativo-escolares que desarrollamos por un período determinado de tiempo. En otras épocas la familia se asentaba sobre un mundo poco cambiante, referido permanentemente a la experiencia de los progenitores y unos valores rotundos e inalterables, donde el estatus de los mayores era indiscutible. Por el contrario, hoy nos encontramos en una sociedad que cambia constantemente, que nos encara a nuevas situaciones y que nos obliga a tomar decisiones continuamente. A su vez, esto nos obliga a adaptar nuestras posturas en consonancia a los cambios que en la sociedad se van produciendo y adecuarnos en nuestro papel de madres y padres.

**Es un recurso de apoyo a las familias con hijos e hijas escolarizados para que puedan desarrollar sus funciones educativas y socializadoras y adquirir pautas saludables de dinámica socio-familiar**

También debemos tener en cuenta el cambio producido en la valoración de los niños y niñas y su educación a lo largo de estos últimos años, la atención y protección por un lado, y muy especialmente la formación y educación que reciben.



La experiencia de la participación de las madres y padres en los consejos escolares llevan a reflexionar sobre la cantidad y la calidad de la participación en sí

**Espacios de formación**

La preocupación por estas cuestiones y su repercusión en la sociedad por parte de distintos estamentos ha llevado a las Federaciones de Madres y Padres integradas en EHIGE a impulsar, fomentar y organizar la formación de los padres a través de los talleres, sesiones y escuelas como un recurso que refuerce el papel de los mismos y su importancia en la educación de sus hijos.

Entendemos estos espacios como lugares de información, formación y reflexión dirigidos a padres y madres sobre aspectos relacionados con las funciones parentales. Es un recurso de apoyo a las familias con hijos e hijas escolarizados para que puedan desarrollar sus funciones educativas y socializadoras y adquirir pautas saludables de dinámica socio-familiar. ♣

**GURASOEN FORMAZIOA ETA GOGOETA SUSTATUZ**

**Seme-alaben formazioa ez da zeregin erraza, gure ahalmen eta gaitasun guztien eta seme-alabenen garapenean oinarritzen baita heziketa.**
**Gurasoek eskola eta institutuetan parte hartzeak gero eta garrantzi handiagoa du, eta horren ondorioz, ezinbestekoa da gure seme-alaben heziketa orekatuan lagunduko duen prestakuntza bikoitza bultzatzea.**
**Gai horiek guztiez eta horien eraginaz gero eta gehiago arduratzen dira hainbat gizarte talde, eta horren ondorioz, EHIGEn sartuta dauden Gurasoen Federazioek gurasoen trebakuntza bultzatzea, sustatzea eta antolatzea erabaki dute tailerren, saioen eta eskolen bitartez, eta horiek hartu ditu gurasoek betetzen duten papera eta seme-alaben heziketan duten garrantzia indartzeko baliabide gisa.**
**Ildo horretatik, BAIKARAN hainbat tailer eta eskola antolatu dira ikasturte honetan zehar, hainbat gairi buruz: 'Koedukazioa', 'Ikasteko ohitura', 'Elikadura eta Nutrizioa' eta 'Giza eskubideak', besteak beste; eta beste hainbat hitzaldi izan dira: Zer da heztea?', 'Elikaduraren nahasmendua', 'Sariak eta zigorrak', 'Irakurketa, telebista eta bideo jokoak', 'Gazteak eta alkohola', 'Nola eman aholkuak eta argibideak nerabezaroan diren seme-alabei', 'Nerabezaroa eta nortasunaren finkatzea, 'Autoestimua indartzea', etab.**

# Escuelas, talleres y charlas para madres y padres

Este es el tercer curso escolar en el que BAIKARA ofrece a sus Ampas toda una serie de Escuelas, Talleres y charlas dirigidos, tanto a Educación Infantil y Primaria, como a la ESO y la ESPO. Entre la variedad de temas que se ofertan dirigidos a Educación Infantil y Primaria están: Comunicación, Prevención de drogodependencias, Fracaso Escolar, Resolución de conflictos, Psicología, Tiempo libre, Conducta, Hábito de estudio, Valores, Coeducación, Alimentación y nutrición y Medio ambiente.
El temario para ESO y ESPO es el siguiente: La comunicación con los adolescentes, Adolescencia, Fracaso escolar, Conflictos, Tiempo libre, Valores, Aprender a decir no, Derechos humanos, Coeducación, Alimentación y nutrición, Medio ambiente y Enfermedades de transmisión sexual.
Las charlas que ofrece la Federación para las madres y padres también vienen diferenciadas según vayan dirigidas a Infantil y Primaria o ESO y ESPO. "¿Qué es educar?", "Familia: ciclo vital, límites, jerarquía, normas", "Comportamiento de los hij@s y posibilidades de cambio", "Premios y castigos", "Transtornos alimentarios", etc, son algunos de los temas que se ofrecen mientras que para la ESO y ESPO tenemos: "Refuerzo de la autoestima", "Las relaciones de amistad en la adolescencia", "Jóvenes y alcohol" y "Adolescencia y afirmación personal", entre otros.



# Formación para Consejos Escolares

La experiencia de la participación de las madres y padres en los consejos escolares llevan a reflexionar sobre la cantidad, la calidad de la participación y qué es lo que ocurre para que ésta sea insuficiente, los padres y madres se muestren indiferentes y con escasa confianza sobre su propia capacidad para asumir esta responsabilidad.
La respuesta a estos interrogantes es compleja, tanto desde la reflexión como desde la acción que requiere una actuación en diversos ámbitos. Aún así, y coincidiendo con la renovación de los consejos escolares en el curso pasado, desde BAIKARA se inició una actuación en un nivel de formación inicial para los nuevos miembros de estos órganos, formación que se sigue ofertando y que es objeto de atención de más de un Ampa.

# BADATOR OLENTZERO

Olentzero ez da, berez, egurgina, ikazkina baizik; eta toki batzuetan, Euskal Herrian ez bezala, txapela jantzi ordez, ikazkinaren zakua janzten diote eta egurrikatzaren koloreaz belzten dute.



Olentzero, pertsonaia hori gaur egun ezagutzen dugun moduan, hainbat fenomeno kulturalen nahasketaren ondoriotik sortua da, garai eta lurralde berean gertatu ziren hainbat fenomenoren bategitearen ondorioa.

Alegia, Olentzero ez dela beti izan panpina zintzoa, menditik jainko-haurtxoaren jaiotza iragartzera jaisten den ikazkina. Olentzero izenaren lehenengo aipamena Lope de Isasirena da, XVI. mende hasierakoa; aipamen horretan ageri denez, hemen Gabonak "Onentzaro" moduan ospatzen ziren, hots, "onen garai" moduan. Lope de Isasi errito paganoen aztarnez ariko zen seguru asko, erlijio animista hori oso zabalduta egon baitzen lurralde honetan VIII. mendea arte eta neguko solstizioa baitzen haren ardatzetako bat, eta, beraz, garrantzi handiko ospakizuna.

**Olentzero, berez, ez zen pertsonaia bat, solstizioa ospatzeko aroaren izena baizik, eta aro horretako pertsonaia batetik hartu zuen izen orokorra**

Beraz, nolabait esateko, Olentzero, berez, neguko solstizioaren ospakizunen aztarna bat da, eliza katolikoak Gabonak izenez berriro bataiatutakoa.

Mende askotan, nekazari giroan eta, beraz, giro pobreetan festak ospatzeko ohitura arruntena eskea edo puxka biltzea izaten zen: etxez etxe ibiltzen ziren, ospatzen ari ziren festari buruzko ekintzaren bat eginez batzuetan (dantza, kantua...) eta herriko gazteek askaria egiteko jana eskatuz. Hala egiten zuten olentzerotan ere: herriko gazteak etxez etxe ibiltzen ziren, batzuetan panpina batez lagunduta, edo gazte haietako bat ikazkin jatun eta edale batez mozorrotuta (halakoa behar zuen izan pertsonaiak, harentzat egiten baitzuten eskea, eta hark zenbat eta gehiago jan eta edan orduan eta gehiago bilduko baitzuten). Horregatik egozten zaizkio ezaugarri horiek Olentzero pertsonaiari, eta, batzuen ustez, Olentzero izena bera ere ekintza horietatik bide dator (Oles egiteko-abesteko, aroa-garaia).

**Ez dirudi Olentzeroren jatorri mitologikoa Europa guztiko landare izpirituak diren zalantzarik dagoenik**

### Mitologian galdutako jatorriak

Olentzero, berez, ez zen pertsonaia bat, solstizioa ospatzeko aroaren izena baizik, eta aro horretako pertsonaia batetik hartu zuen izen orokorra. Era berean, ia soilik abestian oinarritutako eskea egiteko modu bat dela esan daiteke.

Olentzeroren figura gaur egungoaz oso bestelako eran ikusi izan da hainbat urtez, eta erro sakonak ditu mitologian. Bitxia dirudien arren, pertsonaia gaiztoa ere izan da Olentzero garai batean! Olentzero, Nafarroan, Sakanan, Leitzaranen, Araitzen eta Bortzirietan (Lesaka aldean batez ere) ospatzen zen nagusiki, baina herri guztietan ez zuen esanahi bera: herri batzuetan uste zuten Olentzero tximiniatik igitaiarekin zintzilikatzen zela eta burua mozten ziela zintzoak ez ziren haurrei (mamu zakudunaren modura); beste batzuetan, adibidez Betelun, 365 begi zituela esaten zuten; beste batzuetan, leihotik zintzilikatzen ziren lastozko panpinak ziren… adiera asko biltzen zituen izen bakarrak.

Ez dirudi olentzero horien jatorri mitologikoa Europa guztiko landare izpirituak diren zalantzarik dagoenik. Izan ere, izpiritu horiek solstizio garaian jarduten dute bizien eta lotura estua izan dute beti zuhaitzekin (gogoan izan gure olentzero ikazkina dela) eta suarekin. Grezian, esaterako, bada gure Olentzeroren oso antzeko pertsonaia bat, txapelik gabea, 'Kalikantzaroi' izenekoa. ♣

## Olentzero kanta

Olentzero joan zaigu,
mendira lanera,
intentsioarekin,
ikatz egitera.

Aditu duenean
Jesus jaio dela
laisterka etorri da
berri ematea.

Horra, horra,
gure olentzero,
pipa jortzean duela,
eserita dago
Kapoiak ere baitu
arraultzatzuekin,
bihar meriendatzeko,
ardo botilakin.



**Herri batzuetan uste zuten Olentzero tximiniatik igitaiarekin zintzilikatzen zela eta burua mozten ziela zintzoak ez ziren haurrei (mamu zakudunaren modura).**

**ES TIEMPO DE OLENTZERO**

**La figura del Olentzero, tal y como la conocemos, constituye la mezcla de una serie de fenómenos culturales que fueron tomando la forma actual, y cuyo punto de unión ha sido solamente la coincidencia temporal y territorial. Con esto queremos decir que el Olentzero no ha sido siempre, y en todo lugar, un muñeco bonachón, carbonero que baje de las montañas para anunciar el nacimiento del niño-dios. La primera referencia al nombre del Olentzero es de Lope de Isasi a comienzos del siglo XVI, comentando que aquí se celebraba la Navidad con el nombre de "Onentzaro" significando "tiempo de los buenos". Probablemente Lope de Isasi hablaba de una reminiscencia de los ritos paganos, religión animista muy extendida en esta tierra hasta el siglo VIII, que incluía como uno de sus ejes y, por tanto, celebración de gran importancia, el solsticio de invierno. Por lo tanto podemos decir que el Olentzero, en realidad, es la reminiscencia de la celebración del solsticio de invierno, que la iglesia católica renombró como fiesta de la Navidad.**



# Un conflictivo 0-3 años

La aplicación del decreto que regula las Escuelas Infantiles está creando una honda preocupación entre los padres y madres de los centros públicos, pues no se aprecia que exista verdadera voluntad en potenciar la oferta pública en el tramo 0-3.

El departamento de Educación del Gobierno Vasco aprobó con fecha 17 de Diciembre el decreto 297/2002, decreto por el que se regulan las Escuelas Infantiles para niños y niñas de cero a tres años durante los cursos 2002-2003 y 2003-2004. Todos los sectores de la enseñanza pública (sindicatos, asociaciones de directores/as, Federaciones de madres/padres…) rechazamos este decreto por entender que:

- Previamente habría que haber elaborado un mapa escolar con el fin de realizar una planificación correcta de las plazas a ofertar.

- La única posibilidad de oferta pública que se contempla es a través de un Consorcio formado entre Gobierno Vasco y Ayuntamientos, negando a los centros públicos la posibilidad de ofertar el tramo 0-3 íntegro.

- Insuficiencia de plazas nuevas de oferta pública. Se contempla que se van a crear 3.500 plazas en tres años y de acuerdo con nuestras estimaciones sería necesario un mínimo de 5.700 plazas.

A pesar del rechazo unánime del sector educativo público el decreto se ha ido desarrollando, procediéndose a la creación oficial del Consorcio “Haurreskolak” el pasado mes de Julio.

**Todos los agentes del sector público han rechazado el decreto y creen que se pone en grave riesgo el futuro de la escuela pública**

**Incertidumbre en los Ayuntamientos**

Tal y como hemos comentado anteriormente, la única posibilidad de oferta pública es a través del Consorcio, por ello el Departamento de Educación requirió de los Ayuntamientos su disponibilidad de sumarse al mismo. Por los datos de los que disponemos de Gipuzkoa, de los 88 ayuntamientos del territorio, 54 manifestaron una disposición inicial favorable y otros 34 no contestaron. Aquí nos encontramos con el primer problema grave: en 28 pueblos cuyos Ayuntamientos no han respondido, ni disponen de guarderías municipales, no va a existir ninguna posibilidad de que exista oferta pública en este tramo. En esta situación se encuentran por ejemplo Bergara, Beasain, Hondarribia, Alegia, Ormaiztegi, Lezo, etc.

**A los colegios públicos se les impide ofertar el tramo 0-3 íntegro. La oferta pública en un municipio dependerá de la voluntad del Ayuntamiento.**

Pero, ¿qué ocurre en los pueblos en los que el Ayuntamiento sí ha respondido favorablemente ? Pues que en función de las plazas previstas (3.500 en toda la Comunidad) y aplicados una serie de criterios (zona de declive, zona rural, falta de oferta…) se realiza una planificación, estableciendo una serie de prioridades para implantar estas plazas en los años 2003, 2004 y 2005.

Pero aquí no termina la historia con los Ayuntamientos, ya que éstos se encuentran en una situación de total incertidumbre, pues el Departamento de Educación no termina de fijar exactamente los criterios de financiación a la hora de solicitar la entrada en el Consorcio. Como ejemplo podemos citar que a principios del 2003 la financiación de los gastos de inversión para habilitar la infraestructura necesaria era de 50% a cargo del Departamento y el otro 50% a cargo del Ayuntamiento. Sin embargo, en el mes de Julio se les comunicó a los Ayuntamientos que la financiación de estas inversiones sería del 100% a su cargo.



